



kalez kale kutxa ren eskutik

Bizkaiko
burni
hotsak

Herrera aldera

.....
1.939 arte Altza herriko auzorik handiena zen Herrera

San Sebastian-Donostia 1978. urteko monografian, Herrera izenaren sorreraz zera dio Luis Murugarrenek: Bizkaitik ekaritzen zen burdingaia hemen deskargatzen zen eta horregatik geratu zitzaion izen hau.

Burdin hori Sarruetako portura eramaten zen ondoren, Urumeatik zehar burdin-oletara eramateko. Bide beretik itsas ontziak egiteko zura eta burdin-landua ekartzen zuten. Herrera beti komunikagune izan da, horretarako Donostiatik Herrera guztia zeharkatu eta Altzara igotzen den errepidea sortu zen. Erregebide zahar hau, Santa Barbara ermita ondotik pasa eta Molinao zeharkatu ondoren, Erreterria eta Lezora zihoan.



Jose Elozegi
alkatearen
hiribidean hasten
da eta bihurgune
bat egiten du
Norteko
trenbidearen
azpitik pasatuz.

Jose Elozegi alkatearen hiribidean hasten da eta bihurgune bat egiten du Norteko trenbidearen azpitik pasatuz. Maldan gora, «Villas Dobles» auzuneari sarbidea eman ondoren, «Oletako Kurba» deitzen den lekuan, Altzako distrituan sartzen da. Honela, aipatu auzoari eta Pikabeaeneari sarbidea ematen die. Ondoren, «Bideangora» etxea inguratuz, Erroteta eta Arrizar auzoen arteko zatiketa egiten du. Azkenik, Altza Pasealekuari hasiera emanez, Errote-tako Gurutzean bukatzen da.

Herreratik Santa Barbarara, Buenabistatik

Kataliñenera doan errepidea topatu arte dagoen galtzara hau, mende honetan egina da, «Erregebide» zaharrak malda handia zuen, eta horren partez egin zen galtzara berria.

Herrera, 1939 arte, Altza herriko auzorik garrantzitsuenaren antzera, Pasaiako portuaren beso baten bukaran zegoen (Canal de Herrera izenez azaltzen da pleno zaharretan). Paraje honetan bazegoen Portuzar deitzen zen etxe bat, eta dirudienez, 1805. urtean oraindik zutik zirauen.

INFORMAZIO ITURRIA: JOSU TELLABIDE

**GURE KALE ETA AUZOEN HISTORIAREN
PARTAIDE GARA.**



kutxa

Dirua, pertsonen zerbitzura